



BALIABIDEAK

SEENIST

Elaia Altuna

Eneritz Higuero

Enara Losada

Saioa Martinez

Nora Sierra

Funtsezko baliabideak enpresa batek bere balorezko proposamena egin dezan, hori bera bezeroei helarazi diezaien, bezeroekiko harremanak mantentzen eta, azkenik, diru-sarrerak sortzen ditzen ezinbestekoak diren baliabideak dira. Hauek, hurrengo kategoriatan banatu daitezke: baliabide fisikoak, baliabide intelektualak, giza-baliabideak eta finantza-baliabideak.



Hasteko, gure proiektua garatzeko kontuan hartuko ditugun finantza-baliabideak gure aurrezkiak izango dira, hau da, gure urteetan zehar lortutako eta ez gastatutako dirua. Horrez gain, hasierako inbertsioa egiteko diru kantitate horrekin ez bada nahikoa, bankuari mailegu bat eskatuko diogu, gutxinaka bueltatuko dioguna.

Bestalde, baliabide intelektualak eta giza baliabideak taldekide bakoitzaren indarguneetatik aterako ditugu. Adibidez, denok dugun sormenak, teknologia berrien ezagutzak...

Gainera, proiektu hau gauzatzeko beharko ditugun baliabide fisikoak hauek dira: lanerako leku bat, ordenagailuak (online dendarako) eta hortzetako-eskuila diseinatzeko beharko ditugun materialak.

Azkenik, externalizazioa kontuan hartuko dugu gure produktuaren fabrikazioa gauzatzeko, izan ere, gu ez gara hortzetako-eskuil bat sortzeko gai. Ondorioz, arlo horretan espezializatua dagoen enpresa batek garatuko du produktuaren sorkuntza, gure diseinutik abiatuta.

ENPRESAREN ORGANIGRAMA

